

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

653

28/2021 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Yeshika Merino Pérez andrea hautatzen baita Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuaren Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko.

Aztertua izan da Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuaren Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 23ko 1340/2020 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2020ko abenduaren 18ko EHAA (253. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira. Haren ezaugarri profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Yeshika Merino Pérez andrea deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Yeshika Merino Pérez andrea izendatzea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuaren Erizaintzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2021eko urtarrilaren 15etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.